

Iñaki Martínez de Luna

## Euskal Herria izeneko herri galdu bat

**E**

gunon entzuleok!

Gaurko irratsaiorako gai bitxia aukeratu dugu, zuen interesekoa izango delakoan, gure arbasoak Lur planetan bizi ziren garaiei lotuta dago-eta.

Duela mila urte inguru, hau da XXI. mendearen hasieran edo, bazegoen Lur planetan Euskal Herri izeneko lurraldea, Europa kontinentearen mendebaldeko ertzean kokatua.

(Esatariaren hitz jarioa etenda, musika ozenago entzuten da, tarte batez...)

Herri bitxia zen Euskal Herria, inondik begiratzen zaiola ere. Adibidez, bere buruaz oso harro sentitzen zen arren, kontraesanez josita zegoen.

(Melodia, berriz ere...)

Kontraesanez josita zegoela, diogu; zergatik baina? Badaude herri hura horrela kalifikatzeko hamaika arrazoi; ikus ditzagun ale batzuk.

Herri hura Euskal Herria, hots *euskararen herria* izan arren, gehienek ez zekiten hizkuntza hura eta, zekitenek ere gehienbat beste hizkuntza batzuk erabiltzen zituzten.

Herritar gehienen asmoa *herri aske* bihurtzea zen, baina Frantziaren eta Espainiaren artean banatuta egonda ezin erosoago bizi ziren.

*Demokrata konbentzituak*, baina ezin zioten elkarri entzun, ezta haien artean ezertxo ere adostu.

Alderdi politiko guztiek hitz egiten zuten *herriaren izenean*, herriari jaramonik egin gabe; areago, denek herriaren ahotsa zirela zioten arren, bakoitzaren pisu elektoral oso urria zen.

*Tradiziozale amorratuak*, baina, hala ere, ez ziren gainontzeko europarrengandik modu nabarian bereizten.

*Aberats xamarrak* izan arren, lanean ematen zuten bizitza-tarte gehiena.

Nor bere iritzi propio eta berezkoaren jabe zen eta, hala ere, oso *gregarioak* ziren; bakarka edo taldetik kanpo ezin zuten bizi.

*Ama-Lurra* izugarri maite omen zuten, baina euren lurraldea zeharo txikitu eta hondatu zuten.



ALEX LARRETXI

*Matriarkatua* praktikatzen omen zuten, baina emakumeak gizonezkoen menpe bizi ziren, argi eta garbi.

*Bakezaletzat* zuten euren burua, baina bortizkeria sarri erabiltzen zuten, fisikoa zein psikologikoa.

Bistan denez eta garai horietatik iritsi zaizkigun dokumentazioak eta aztarnak lekuko, euren izaeraren kontraesanak askotarikoak, amaigabeak eta sakonak ziren.

Bestalde, hainbat leku-izen ikusten dugu denbora haietakoak, behin eta berriz errepikatuta, gehienak zer ziren oso ongi ez dakigula. Esaterako, Euskal Herriaren pare-edo, hurrengoak agertzen ziren sarri askotan: Euzkadi, Euskadi, Vascongadas, País Vasco, Pays Basque, Vasconia, Navarra, Nafarroa, Reino de Navarra, Iparralde, Hegoalde, Pirinées Atlantiques...

Badago, era berean, beste kontzeptu-sorta, herri hartako asmo politikoei lotuta agertzen zena eta ez dakigu burututako asmoak ote ziren edo aurrera atera ezinean bukatu ziren: Zazpiak Bat, Laurak Bat, Estatu de Estella, Gernikako Estatutua, Amejoramientoa, Departamento Propioa, Ibarretxe Plana, Independentzia, Euskal Estatua eta abar.

Zoritzarrez, gehiagorik ez dakigu herri hartaz, eta Lur planetatik gizakume guztiek ziztu bizian abiatu behar izan zuten unetik aurrera, hau da, duela 1.000 bat urtetik hona, ez dugu Euskal Herriaren berri edo aztarna gehiagorik izan. Kontraesanean urtu eta desegin ote zen herri berezi hura? Edo, garai hartako iritsi zaigun *Zenbat gera* kantak (Lertxundi izeneko abeslari euskaldun batena) zioen bezala, *elkar jo, elkar bil* jarraitu ote zuten, desgertu arte?

(Hasierako musika bera entzuten da emeki-emeki...)

Eta, entzuleok, amaiera emango diogu gaurko istorio bitxi honi, egunero ohi dugun bezala; hau da, aurtengo txapelketan irabazle gertatu zen *irrintziarekin!* ■

Zoritzarrez, gehiagorik ez dakigu herri hartaz, eta Lur planetatik gizakume guztiek ziztu bizian abiatu behar izan zuten unetik aurrera, hau da, duela 1.000 bat urtetik hona, ez dugu Euskal Herriaren berri edo aztarna gehiagorik izan